

Hiperkonexiotik at biziraun

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Inbidia puntuz erreparatzen diet Hergarai bailarako haurrei. Gaur izango dute laugarren eguna pantailarik gabe. Quebecen sortutako egitasmoa baliatuta, Nafarroa Behereko bailara horretako hainbat gunetan, hamar egun pantailarik gabe pasatzeko erronka onartu baitute.

Egia esan, gehiegitan ikusi dut neure burua pantailaz inguratuta. Bulegoan ordenagailu aurrean lan egiten dudanean, beti izaten dut sakelakoa alboan. Eta gai naiz, sofan telebista ikusten egonik, aldi berean, sakelakoarekin Twitter begiratzeko eta tabletarekin Internetez eros-

ketak egiten aritzeko. Baina kanpaina eta kanpaina arteko zurrumbilo honek, inoiz baino gehiago aztoratzen naute ezordutako deiek, whatsapppek eta mezu elektronikoei. Eta egun batzuetan ez dut deiak hartzeko gogorik edukitzen, eta konexioa kentzen diot sakelakoari whatsappk ez jasotzeko.

Izan ere, whatsappk jaso eta irakurriz gero, erantzuteko sekulako presioa sentitzen dut, bidali didanak irakurri dudala jakingo duelako bi markatxo urdinak ikusita. Hiperkonektatuta bizi gara, ez dago zalantzarik. Gogoan dut, garai batean, 21:00etatik aurrera inori etxera dei-

tzeak erreparoa ematen zigula, edo aita-ren siesta garaian etxeko telefonoak joz gero, lehenbailehen hartu eta ahopeka erantzuten genuela, hura esna ez zedin.

Orain, ordea, edozein ordutan bidali eta jasotzen ditugu era bateko eta beste-ko mezuak, eta badirudi ez dugula deskantsurako denborarik. Beraz, nire inguruko inor ez dadila harritu edozein huskeria galdetzeko ezordutan deitu edo idazten badit, kasurik egiten ez diodalako. Hamar egunez ez bada ere, egu-nean ordu batzuez pantailarik gabe bizi-rauteko erronka jarri baitiot neure buruari. •

Karaokea

Joxean Agirre

Karaokeak badu zerbait fartsatik eta ondorioz festibotik, niri grazia-rik egiten ez badit ere. Horregatik harritu nintzen orain urte batzuk hiletaren batera joan eta elizaren alde banatara pantailak ikusi nituenean, eliztar memoria urrikoek “Agur Jesusen ama” eta gisako betiko kantuak kanta zitzen. Gure asaba zaharren fedea ahultzen ari zela pentsatu nuen.

Pantailarik ez zenean Iñaki Murua bertsolariarekin gogoratu ohi nintzen, esaten baitzuen ez zuela ez bertso zaharrak ez elizako kantuak osorik buruan gordetzeko gaitasunik, eta, kanta-tu beharra egokitzen zitzaionean, asmatu egiten zituela ondokoen harri-durarako. Ni ere, Iñaki imitatuz, asma-tzen saiatu ohi nintzen, haren mailara iritsi gabe noski, baina hala ere batzue-

tan jatorrizko bertsioaren mailara iris-ten ote nintzen iruditzen zitzaidan.

Maiatzaren 1ean oporretan Vienan egokitu ginelarik, sozialdemokraten (SPÖ) festara joan ginen. Donostiako danborradan bezalaxe, auzo edo distri-tu guztietatik desfile ikusgarriak egi-nez iritsi ziren udaletxe atarira, segizio bakoitzaren buru bandak, batukadak eta jazz taldeak zituztela, hiri horretan tontoenak ere instrumentu bat jotzen badakiela baitirudi. Bi ordu luze eman genituen hizlariak entzuten, ezer ulertu gabe noski, nahiz eta ni nahikoa ona naizen ezagutzen ez ditudan hizkuntze-tan hizlariak ulertzen, eta bukaeran zu-tik jarri eta batzuk ukabila altxatuta In-ternazionala kantatzeko prest jarri zirelarik, neu ere “Zutik, lurrean konde-natu zaren langile tristea/ nekez ginen elkarganatu, indazu albiristea/ gerta-

tuak ez du ardura, jende esklabua jaiki!” Arestiren bertsioan kantatzeko prestatu nintzelarik, aurreko pantaila erraldoian alemanezko bertsioaren testuak hasi zi-ren igarotzen eta pentsatu nuen gure asaba gorrien fedea ere ahultzen ari ote zen.

Goizeko bederatziatan hotela zegoen kaletik barrena atabal biren erredobleek esnatu gintuzten. Leihora atera eta ha-mazazpi militante komunista ikusi ge-nituen beren igitai eta mailuak astin-tzen. Auzo lotsa sentitu nuen hasieran, baina berehala ohartu nintzen gutxi iza-tearen harrotasuna zeramatzela aurpe-gian marrazturik. SPÖkoak milaka asko ziren. Handik berrehun metrotara elkar-tu ziren alderdi komunistakoak, pare bat mila gehienez. Hauek buruz kantatu zuten Internazionale. Egia esan, ez zu-ten pantaila erraldorik ere. •